

## Antolakundiaren izenian bi berba

Egun on, danoiri, oholtzakidiori (Iñaki Aldekoa herriko seme eta idazlari, Mikel Biain alkate jaunari eta Jerardo Elortza omendu jaunari) eta Santa Ana antzoki honetara etorri zarain guztioi.

Dakizuen moduan, gaur alkartu gara hemen Jerardo Elortza jaunari omenaldixa egitteko; ba, gaixari lotuta antolakundiaren izenian bi berba egin gura dotsuet omenaldi honen testuingurua eta zergatixa esplikaitteko.

2018xa oso urte garrantzitsua da euskeriaren historiaren ikuspegitik, alde batetik Eusko Ikaskuntza sortu zala ehun urte beteko diralako, eta bestetik Euskaltzaindiak euskera batua sortzeko Arantzazuko billera famosua egin ebenetik beste 50 urte fan diralako. Efemeride bixak Oñatirekin lotura haundixa dakoiñez, aurtengo udazkenian ospatuko dira herrixan ekitaldi horrein urteurrenak. Ba, erakunde bi horrekin eta eurak egindako lanarekin zerikusi zuzena dako gure Jerardok, Oñatin euskera eta euskal kultura erakusten egin dauen guztiak herriko mugak gaindiketan dittu eta Euskal Herri maillan erakunde nagusixak egindakuarekin bat egitten dau. Horregatik ba, ondo merezi eben gure ustez, Jerardoren hirurogeita hamalau urtiak, Eusko Ikaskuntzaren ehungarrenak eta Euskaltzaindiaren batuaren oiñarrixen berrogeita hamargarrenak urte berian ospaketia.

Gure omenduak aste honetan hirurogeita hamalau urte bete dittuenez: **Zorionak eta eskerrik asko, Jerardo, danon partetik!**

Eta zergatik omenaldi hau zuri, Jerardo? Ba, duda barik, zeuk iragako berrogeita hamar urtietan egindako lanak geure herrixa hobeto ezaguketan lagundu doskulako, erakutsi doskuzulako herrixan zer geukan eta zer pasau dan gure historian, norberaren herrixa maittaketan, dakogunarekin eta garienarekin harro eta pozik sentitten azken fiñian, eta horregatik danorregatik **oñatiarron omenaldixa jasotia merezi dozu**. Eta ez bakarrik egin dittuzun lan guztiak egin izanagatik, egindako moduagatik be bai, hau da, betik era apalian, isillian eta desinteresatuan jardun dozulako zure ibilbide guztian.

Zeu oraindik oso gazte ziñala aittatutako guztiaren alde lanian hasi ziñanian, geure herrixa Euskal Herri guztia bezalaxe euskal kulturiaren begittatik ikusitta basamortu hutsa zan. Egoera latz hartan zeu bezalaxe beste herritar batzuk be lanian jardun euen euskal mundua berpiztu zedin; ba, gaurko honetan garai zail hartan gogor lan egin euen guztiak omendu gura dittugu zeurekin batera, hau da, Oñatz alkarteko kidiak, Ikastolako lehenengo guraso eta maisu-andereño konprometituak, Liburutegiko batzordekuak —Felix Ugarte tartian zala— euskalduntze-alfabetataittek aintzindarixak eta abar luzia. Hareik danak goguan dittugu gaurko egunian!

Baiña eskerrak emutiaz aparte, zeuk egindako lanari **zabalkundia emun gura izan xaugu** omenaldixaren aitzakixiagaz. **Gure asmua izan da zure lanak erakustia eta jakin eragittia mundu guztiari, herritarrenkandik eta gaztienkandik hasitta**; eurai erakutsi gura dostegu herriko historia eta literaturarekin lotutako zenbat lan egin dittuzun, zein diran eta nun dagozen kontsultagai, danori euren eskuetan ifiñixaz.

Eta azkenengo asmua, **zure lanari jarraipena emutia da**. Zuk jorratutako bidiak zurekin eztitzezela amaittu gurako geke. Aurrera begira be izan dittezela jarraitzailliak zure ildotik lan egin, eta hurretik hasitta, euskal kultura arlo danetan jorratu, landu eta frutu helduak sortuko dittueiñak. Bixarkuan, etzikuan be zure moduko kulturgilliak ikusi gurako gittuke geure herrixan.

Horretarako danorretarako, antolatu dittugu herriko kultur erakundiakin eta Udalarekin alkarlanian, Jerardoren omenaldixaren ekittaldi danak: erakusketia, hitzaldixa, mahai ingurua, txangua, eta gaurko ekittaldi nagusixau, gure hasierako egitasmuari oraingoz amaieria emungo xauena.

Aittaketia merezi dau, bestetik, Jerardori egin gura gotsan omenaldixaren ideia han-hemenka botaten eta ideia gauzaketako laguntza billa hasi giñanian, herritarren, alkartien eta udalaren erantzuna ezin hobia izan zala. Guztioi, ba, gure esker ona: familixiari, lagun zaharrai, lankidiai, herriko alkartiai, udalari eta modu batian edo bestian Jerardorekin hartuemuna izan dozuein guztioi, zuek barik ezingo litzake-eta modutu antolau dogun omenaldi hau. Eta eskerrak emuteko orduan, eneke ahaztu gura, sendo bai sendo, lan egin dauein antolakundeko bi lagun honeik be: Kepa eta Charo. Bihotz-bihotzez, milla esker zuei bixoi be!